

Esne bideak

Jose Anjel Etxeberria Sarasua



Aparola baserritik Errenteriako plazara bidean, oinez Maria Dolores Ibarbia andrea (Josepa Antonia Genobaren ama) eta asto gainean Antonia Telleria andrea. Errenteria, 1960. urtea. Crisanta Echeverriak emandako argazkia.



Gaur egun oso modan daude eta gogoko ditugu "Bidegorriak". Azken urteetan bide mota hauek asko ugaritu dira. Oso erosoak dira eta prestatuta daude bere eseri lekuekin, komunekin, iturriekin, eta abar...

Lehenago ere baziren "bidegorriak", benetan gorriak eta gordinak. Aspaldiko bide horietaz hitz egingo dizuet, Errenteriako esne bideez, horiek ere ugariak. Baina esne bide horietan bidea baino askoz garrantzitsuagoa ziren hura gauzatzen zuten pertsonak eta abereak. Gaur egun desagertuta eta ahaztuta dagoen irudia osatzen zuten. Orain dela berrogei bat urte arte eguneroko irudia zena Errenteriako kaleetan.

Urtean 365 egunetan, eta aurtengoa bezala bisurteetan egun bat gehiago, egunero, egun bakarrean kale egin gabe, gure kaleetan ibiltzen ziren. Haientzat berdin zen hotza ala beroa, euria

edo hego-haizea, elurra, kazkabarra, trumoia... eguneroko ibilbidea zuten. Eta eguerdirako desagertzen ziren. Nortaz ari naizen galdetuko didazue, esnezaleez ari naiz, esne banatzaileez.



Esne bidea goizean goiz hasten zen, lehen orduan behiak jaitsi ondoren, astoa edo mandoa prestatu, kargatu esne marmitekin eta abiatzen ziren Erreterriako kaleetara. Esne bide hori oinez egiten zuten, zamarako aberearen laguntza zutela. 40 minutuko ibilbidea edo ordubeteko, segun baserria non zegoen kokatuta. Garai hartan baziren batzuk, oso gutxi, karroarekin etortzen zirenak, hori gradu bat zen, hala ere esnezale gehienak marmitak astoen gaineko kartoletan lotu eta egiten zuten eguneroko lana. Gizonezko batzuk izan arren, lan hori esan daiteke etxeko emakumezkoena zela, esnezale ohikoa andrazkoa zen eta laguntzaile gisa etxeko umeak.

Erreterriako esne bideak, herri inguruko baserrietatik erdialderaino zetozenak, ugariak ziren. Baserriak eta Plaza lotzen zituzten. Bakoitza bere aldetik, Zamalbide, Perurena eta San Marko mendi ingurukoak, batzuk Isatseko aldapatik behera, beste batzuk Mastitik eta Arramenditik pasata, Pontikatik barrena, Madalen kaleraino iristen ziren. Lezo aldekoak ibaia, erria, zeharkatu behar zuten, zubia pasata, zubi berria –Olibet eta Alkolera ondokoa–, aurrerakoa –Zubiaurre kaleko zubi zaharra –Panier jatetxeak izena eman zion zubi– pasa ondoren iristen ziren erdialdera. Arragua, Lartzabal eta Fanderia aldeko baserrietakoak, Santa Klara kaletik barrena, Perratokia eta Fabrika Handiaren pareta eskuinean zutela, Pio Etxeberriaren pentsu denda aurretik pasata Erdiko kalera iristen ziren. Hiru esne bide horiek bat egiten zuten Merkatu ondoko Asto Lekuan. Han bat egiten zuten esnezaleek eta esne marmitaz kargatutako astoek.



Azkenerako, ondo ezagutzen dudan esne bidea utzi dut. Hurbilekoena dut, hau idazten duen honek inoiz egin izan duelako, umetan. Goiko bidea duzue hau, Añabitarte inguruko baserrietatik zabaltzen zena, Erreterriako erdialdera. Zentolenetik pasata, Agustinetako komentura

iristen zen, handik Gaztelutxora eta handik Goiko kaletik behera, Asto Tokiraino.

Nik bizi izan dudan esne bidean, esne banaketa Asto Tokira iritsi aurretik hasten zen, eta jakin badakit beste gehienek ere berdin egiten zutela. Ibilian, esnea banatu. Aipatzen dizue-dan esne bide honetan, aurreneko bezeroak Agustinetako auzoan bizi ziren. Esnea marmita handitik, txantxilarekin esne kantitatea neurtuaz, marmita txikietara pasatzen zen eta ondoren etxe bakoitzeko sukalderraino eramaten zen. Gero Goiko kaleko etxeetan eta ondoren pausoz pauso, etxez etxe, Asto Tokira iritsi arte.

Asto Tokia, hori zen esne bide guztien elkargunea eta astoen azken parada. Erreterriako harresien aztarnak gordetzen dituen eta Azokaren eraikinaren atzean den Asto Toki hori astoen pausalekua zen. Horraino iritsi zitezkeen astoak. Horman sartutako uztaietara lotzen ziren, asto bakoitzak bere lekua zuen, eta hor geratu behar ziren esne banatzaileek bere lana egiten zuten bitartean. Hortik aurrera etxez etxeko esne banaketa lana esnezaleek egin behar zuen, marmita zintzilik zeramatela, kalez kale, ezkaratzaz ezkaratza.

Esnezale bakoitzak bere bezeroak zeuzkan. Banatzaile bakoitzak hartzen zuen behar zituen marmitak eta etxez etxe, eskailera gora eta behera, esnea



bezeroen artean banatzen zuen. Etxe bakoitzean eskaera zehatza izaten zen, hemen litro bat, han litro eta erdi, bestean bi litro. Beharrak ere aldatu egiten ziren, "bihar ekar nazazu gehixeago, bazkaria daukagu eta flanak egin behar ditut". Eta horrela, esnezaleak marmitak zintzilik eramaten zituen Erreterriako kaletan zehar. Eta berriro eskailerak gora eta behera azken etxeraino esnea banatu arte.

Birziklapena ahoz aho dabilen honetan, esnezale gehienak, baserrietan txerriak gobernatzen zituztenak, egiten zuten zabor organikoen bilketa ekarri nahi nuke gogora. Esnea banatzearekin batera, esnezale batzuek txerri jana biltzen zuten. Etxeetan, txerri-pazitan bildutako janari hondakinak baserrietako txerri kortetan bukatzen zuten, txerriak gobernatzeko eta horrekin batera kaleko bezeroei zaborraren arazoa konpontzen zieten. Ekonomikak, sukaldeko suak, birziklapenaren beste parte bat betetzen zuen, han erretzen ziren organikoak ez ziren, eta erre zitezkeen hondakinak. Plastikokoak gutxi ziren eta aipatutako birziklapenak egin ondoren, zabor errefusa orduan hutsaren hurrengo zen. Beste garai batzuk ziren, baina badaukagu nondik ikasi.

Esne bide horiek bazuten bere "burtsa edo bitartekaritza". Esneak ere bere gorabeherak baititu. Behiek ez dute beti esne bera ematen, batzuetan gehiago, beste batzuetan ia ezer ez. Esne banatzaileak kopuru jakina banatzen zuen, eskariaren gaineko banaketa baitzen. Baina, aipatu moduan, lehengaiarekin gorabeherak gerta zitezkeen. Esne burtsa hori gurean Erreterriako Merkatuan zegoen. Ez dut ahaztu nahi hor zegoen lagun hori. Asto Toki aldeko atetik sartu eta aurrez aurre topatzen ziren pertsona honekin: emakumea, beltzez jantzia, aurreko mantalarekin, urteetan sartuta eta marmitaz inguratuta. Bere lanbidea: esne salerosketa. Esnezale batek esnea soberan bazeukan emakume honi eskaintzen zion eta prezioa negoziatu ondoren berari saltzen zion. Eta, alderantziz, esne beharrean bazeuden berarengana jotzen zen. Kasu honetan, ezen, bakarrik negoziatzen prezioa, baita esnearen kalitatea ere, esne guztiak ez baitira berdinak... Kalitatea oso garrantzitsua zen, ogibide honetan esnezale bakoitzaren, baserri bakoitzaren izena, izen ona, baitzegoen jokoan. Horra hor, esne bide horietako esne burtsa.

Gizarte kohesioa hain egunekoa dugun garai honetan, esnezaleek egiten zuten beste lan bat ez nuke ahaztu nahi. Esne banatzaileek baserria eta kalearen arteko zubi lana egiten baitzuten. Batzuei besteen berri eman, bi bideetako norabidean, baserriarrak eta kaletarrak elkartzen zituzten. Baserria eta kalearen arteko abisu eta albistegi eramaileak ziren: gaixotasunak, heriotzak, jaiotzak, ospakizunak... bizitzaren berri zeramaten, gora eta behera.

Jarrai dezagun, gure esnezaleen ibilbidearekin. Esne banaketa bukatu ondoren, erosketak eta enkarguak gelditzen ziren: ogia, harategia, arrandegia, botikak eta etxean behar diren gauza guztiak. Hor ere bideak zeuden, esnezale bakoitzak bereak zituen, baina hainbatetan bat egiten zuten, honako okindegian, hartako kinkailategian, Erdiko edo Biteri kaleko farmazian...

Eta guztia egin ondoren, hartu astoa Asto Tokian, zamatu egindako erosketak eta berriro, aldapa gora, buelta baserrira. Etxera iristean etxeko lanak zain baitzeuden.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan hasi ziren lehenengo esne banatzaileak, esnezaleak, autoz Erreterriara jaisten. Abantaila handia izan zen. Orduetik aurrera Erreterriako kaleetan zehar autoetan eramaten ziren marmitak eta handitik txantxilekin neurtua txikira pasatzen zen eta etxez etxe banatzen zuten, hemen litro bat, hor litro eta erdi... Autoa astoaren ordeaz, bestelakoan lana ez zen gehiegi aldatu.

Horra hor esne bide hauek, eta horra hor hori egin zuten andrazkoak. Oroitzaren bitartez ahanzturatik atera nahi nituzke emakume guzti haiek eta nire omenaldia eskaini bide gorri hau urteetan egunero egin zuen nire ama Juanitari eta bere izenean bilduta beste hainbeste andre esnezalari, esne banatzaileei!



Morrontxo baserriko Mari Carmen andrea eta Martina astoa, Madalenaren ermita aurrean baserriko bueltan.